

## EUSKARAREN SUSTAPENERAKO AHALEGINETAN

*Aramaio, 1999-IX-25*

*Andres Urrutia*

### 1. SUSTAPENAREN ZERGATIAK ETA TRADIZIOA EUSKALTZAINDIAREN BARNEAN

*Jagon* Sailak, bere IV. Jardunaldietan, zuen aurrean eta, oro har, euskal munduaren aurrean agertu nahi ditu Sustapenaren inguruko bere asmo eta egin-kizunak. “Sustapen” Batzorde du izena *Jagon* Sailaren barneko batzorde berriak, eta horren eraketarako pausoak Baionan eman ziren lehenengoz, aurtengo otsailean. Izan ere, Euskaltzaindiak orduantxe ondu zituen XI. Barne Jardunaldiak eta, horietan bertan, *Jagon* Sailaren baitakoak eraberritu ziren, bi atal desberdin sortu eta atal bakoitzari egiteko apartekoak ezarri zizkiola gure Akademiak. Bati hizkuntzaren corpusa erantsi zaio eta besteari, ostera, hizkuntzaren estatusa edo sustapena.

“Sustapen” hitza erabili da batzorde berri horren ponteizentzat. “Sustapena” baina ez edozelakoa, taiutua eta zehaztua baino. Ildo horretatik joan eta berehala aurkitu ditugu horren partaideok halako zera nagusiak, alegia, euskararen mesederako lanean sustatze eta bultzatze asmo eta egokiera. Baditugu, besteak bete, horretarako tresnak, batez ere gogoeta eta ekintza kontuetan. Baditugu, era berean ere, gure muga eta ezinegonak. Batzuen eta besteen azaltzea dugu, esan beharrik ez badago ere, gaurko egunaren helburu eta xede.

Anitzek galdetuko dute, dagoeneko, ea zein den mota horretako batzorde baten egitekoa. Areago, Akademiaren barruan ere, norbaitek halako baten premia zalantzan jar dezake, kontuan hartzen bada azken urteotan Euskaltzaindiak daraman bidegintza.

Halakoei euskararen corpusa ardura zaie nagusiki. Horretara lerratuta, hizkuntzaren gramatika eta hiztegia, horien gaurkotzea eta, hala nahi baldin bada ere, aurki eskura izan dezakegun etorkizunaren beharrei erantzuteko hizkuntz tresneria kontzeptuala dute horiek jomuga eta helbide.

Hori da, izan ere, akademiek ohiko izan duten zeregina. Hori ere egotzi nahi izan zaio azken aldiotan, lehen esan legez, Euskaltzaindiari. *Ekin eta Jarrari* da erakundearen goiburua. Har dezagun “erakunde” hitza eta ikus dezagun, gaingiroki bederen, Euskaltzaindiak nola azaleratu duen historian zehar kezka hori, estatutuz estatutu eta garaitik garaira.

Gizarte giroak gorabehera, Euskaltzaindiak beti nabarmendu izan du bere burua euskararen babesean. Hona hemen, esandakoaren erakusle gisa, 1920. urteko estatutuaren esana:

5. *Yagokideak berena dute: Euskera edolako bizipide ta gizartekoetan azkar ta garbi eutsi ta zabaltzea, ta euskal-idazkuntza agerbide orotan pizkortzea* (Euskaltzaindiaren Sortarauak, 1920).

*Yairsailaren batzorde iraunkorrek arazo auek izango dituzte: euskerazko gutunak eginarazi; euskara sendatu, zabaldu ta irakatsi-eragin; erderazko gutunik egokienak itzuli ta izkera garai bakar bat emeki-emeki atondu* (Euskaltzaindiaren Barneko Araudia, 1920).

Horretarako arrazoia bazen aldi hartan eta bada gaur ere, zoritxarrez, begien bistakoa. Euskara bera, gutxitua eta gutxiengotua dugu Euskal Herrian. Alfer-alferrik finkatuko da euskararen corpusa, finkatze lan horren fruituak euskal gizartean gorpuzteko aukerarik ez badugu. Horra hor betidaniko jagote lana. Euskararen babesa eta aurrerakuntza, gizarte eta elkarbizitza mailan, arlo berriak irekiz haren mesederako. Aldian aldiko inguruabarrak ahaztu gabe, baina aldian aldiko premiei eta eskakizunei ere erantzun egokiak emanaz. Horrengatik esan daiteke, neurri batean behinik behin, hizkuntzaren barruko sustapen lanak baldintzatu eta zedarriztatzan dituela hizkuntza horren corpusgintzarako gauza daitezkeen ahaleginak.

Halakoxeak non-nahi eta eguneroko ditugu, gaur ere, esku-eskura, lege, araudi eta aitorten guztien ginean euskarari hamaikatxo ate ixten zaizkionean.

Aipa dezagun 1976. urtea. Urte horretako 573/1976. Errege Dekretuak, otsailaren 26koak, Euskaltzaindiari aitortu zizkion nortasun juridikoa eta ofizialtasuna. Orduko estatutuetan, lehenengo artikuluan, hain zuzen ere, irakurtzekoak ziren jarraikoak:

*Lehen artikulua. Euskaltzaindia Instituzio bat da, 1918. urtean, Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko lau Diputazioen babespean sortua. Honako xede hauek ditu helburutzat:...*

e) *Euskararen enplegua aintzinatzea...*

f) *Hizkuntzaren eskubideak zaintzea...*

Aitorten hori ez zen hilean geratu. 1978. urtean batzorde eta sailak berregituratu eta horra hor, beste behin ere, abiada bizian, JAGON Sailaren ekina Euskaltzaindiaren baitan, Juan San Martin euskaltzain osoaren eskumenean.

Edonola ere, 1991. urteak aldaketa sakona ekarri zion JAGON Sailari. Knörr euskaltzainkidearen zuzendaritzapean Mikel Zalbidek prestatu zigan txostena zela bide, JAGON Sailak aurreratu zuen gerorako kezka nagusia izango zuena eta egun ere duena, hau da, euskararen kalitatearena eta prozesu hori gidatu beharrena. Aldi berean ere, ezinbestekotzat jotzen ziren Euskaltzaindiaren arauak gizarteratzeko bideak eta moldeak. Ordutik hona pauso batzuk

eman izan dira eta “Arauk” argitalpena arrangura horien lekuko zuzeneko izango litzateke.

Gatozen, ostera, 1999. urtera eta ikus ditzagun, ardura horien aldamenean, bestelakoak ere. Ukaezina da euskarak, oraindik ere, ez dituela hizkuntza oso bati dagozkion eremuak betetzen. Eraso eta aintzakotzat ez hartze ugaritxo dabilta gure artean euskararekiko. Hortik dator, etorri ere, arrangura berri —edo eraberritu—, eta kezka arduratsu hori. Hizkuntza bera, legez eta gizartez, non dagoen eta nora eraman dezakegun edo gaitzakeen.

## 2. SUSTAPENAREN NONDIK NORAKOAK EUSKALTZAINDIAREN ZEREGINETAN

### 2.1. Euskaltzaindia eta sustapenerako beste erakundeak

Aurreko berba horiek, seguru asko, batek baino gehiagok asaldatuta entzun ditu, berehala sumatu baitu Akademiaren eginkizun hori, latza eta mergatza, eskergaiztokoa eta gogorra dela, eta aurretiaz horretan dabilzan hainbat eta hainbat erakunde publiko zein pribaturen zereginekin ere, agian, lehiakorregia.

Munduan barrena halakorik badela ezin ezkuta. Frantzian bertan ere, aspaldiko *Académie Française* delakoarekin batera, jokoan dira *Conseil Supérieur de la Langue Française*, *Haut Comité pour la défense et l'expansion de la langue française*, *Commissariat général de la langue française*... Edonondik begira dakiela ere, Frantziako eta Euskal Herriko kasuak ez dira bateratzeko modukoak.

Horretan luzatzea ez du merezi. Goiz honetan solaskide dugun Juan San Martin euskaltzainkidea sakon eta argi mintzatuko zaigu horren inguruan. Bego bakarrik hemen hitza, zerbait argigarri esateko lehiakortasun horri buruz: Euskaltzaindiak ez du inor baztertu nahi eginkizun horretatik. Are gutxiago, Akademiari egokitzen ez zaizkion gorabeheretan bere burua, besterik gabe, murgildu. Ez dago horretarako gertu, egituraz nahiz baliabide ekonomikoez.

### 2.2. Sustapenerako oinarriak

Euskaltzaindiak, ostera, Euskal Herri osoan izan dezakeen ospe eta itzala euskararen babeserako jarri nahi ditu eta, orobat, horren alde jokatu, berari dagozkion ordezkariak aurrera eramanez. Alor hori lan bertsuan aspalditik diharduten erakundeekin batera nahi du jorratu.

Ez du besterik buruan Euskaltzaindiak eginkizun horretan, hurrengoa baino:

a) Aspaldiko tradizioari eutsi eta Euskal Herri osorako duen izate eta egote horren bidez, edonongo euskaldunak batu euskararen arrimuan, Euskal Herrian bertan zein erbestean direla horiek.

b) Aspaldikoari eutsi eta aspaldikotasun horrek ematen duen eskarmen-tuaz baliatu, sinetsita langintza horretan sarri askotan isileko lana dela behar-  
ren, besteetan agerikoa nagusi bada ere.

c) Hirugarrenez ere, aspaldikoari eutsi eta urteetan zehar bereganatu duen ospe, itzala eta ordezkartzaren bitartez euskararen sustapenean jardun, betiere, euskaldunek eurek halakoa aitortu eta onuragarri irizten badiote haren egite-koari.

Entzun legez, hirutara batu ditut "Sustapen" batzorde horren oinarriak. Horiek dira zimentarriak ekintza apal baina, aldi berean ere, sendo baterako. Mugatua bada ere, ahal den neurrian behinik behin, Akademiak egiteko hori eraginarri oso izatea nahi du.

Badu horretarako Euskaltzaindiak beste sustrai bat, aurreko hirurokin ba-tera hona ekarri behar duguna. Izan ere, Euskaltzaindia dugu, legez, euskararen arazoetan erakunde erabakigarria. Hala gertatzen da Euskal Herriaren zatirik handienean eta hortik bidera daitezke, zinez eta benaz, sustapenerako batzorde baten lerro nagusiak.

"Sustapen", horra hor, lehen esan legez, batzorde berri horren ponteizena. Sustapen horren ildotik ezin ulertu, inondik ere, beste batzuek (Eusko Jaur-laritzak, Nafarroako Gobernuak, Iparraldeko hainbat erakundek) egiten dutena, diru asko zein urriekin. Ezta hizkuntz politika hutsa ere, hori, legez, beste erakunde batzuei dagokielako. Euskaltzaindiaren egitekoa zuzendua behar dugu, zehaztua, gogoetaren bidez Euskal Herriaren lurralde desberdinetan euskararen egoera aztertzeke eta, horren ondorioz, proposamenak egiteko, Euskal Herri osoan euskarak izan dezakeen estatusa hobe dadin.

Labetik harako ogia izango balitz bezala, zilegi bekit 1999. urteko maia-tzean Akademiak berak formulaturiko "Barne erregelak" hona alderatzea. Orain arte esandakoaren isla eta ispilu ezin argiagokoak, aurreko horien 1.5 eta 1.6. artikulua:

### *1. art.*

*Euskaltzaindia Instituzioa da, nortasun eta gaitasun juridiko osoa duena; eta, helburuak bere Araudiak biltzen dituenak izanik, alor hauetan arituko da bereziki...*

*1.5. Euskararen erabilera aintzinatzen eta sustatzen, horretarako da-gozkion gizarte eragileekin batera behar diren mota guztietako harremanak ugalduz.*

*1.6. Hizkuntzaren eskubideak zaintzen, horretarako euskal hiztunen hizkuntza eskubideak jagonez, bai euskara erabiltzeko tenorean, bai eta era-bilera hori zuzena izan dadin...*

Gogoeta eta ekintza. Ekintzarako osagaietan, jakina, ez dira soil-soilean ikusten euskarari buruzko eztabaidak kokatzeko guneak, ezpada euskararen aurkako —eta legearen aurkako— egiten diren ekintza horien salaketak.

Batzuek, bistan dago, esana dute euren kautan: badator, berriro ere, euskara politikoen zurrumbiloan sartzea. Nora joango ote da, politikoen haize bolada hauek eramanda, gure Euskaltzaindia?

Ez datoz horiek zuzeneko bidetik. William Safran autoreak berrikitan idatzi du Frantzian hizkuntza bera dela estatu afera, esangura bikoitzean: batetik, hizkuntzaren aldeko politika bat dagoelako bertan eta, bestetik, hizkuntzaren bidez politika bat egiten delako, hau da, hizkuntza bera helburu politikotarako erabiltzen delako:

*In France, language is an affair of state in a double sense: that of a policy for the language as well as the politics and policy by means of language, that is, of using language in the service of political objectives* (SAFRAN, W., "Politics and language in contemporary France: facing supranational and infranational challenges", *International Journal of the Sociology of Language*, 137, 51. orrialdea).

Horra hor gure muga eta munarria. Euskaltzaindiak beharrena du euskararen babesa eta horretarako egin behar duen gogo-jardunean alboratu behar du, nahitaez, euskara bera politikarako erabiltzea, alderdi politikoen arteko lisarretan izkilu hutsa izan ez dadin.

Hizkuntzaren politika eta gobernuia, horixe baietz. Deitoragarri, edonondik ere, hizkuntzaren bitarteko politika. Antzinako mezua da hori Euskaltzaindiaren barnean. Luis Villasante, Jose Maria Satrustegi, Juan San Martin, Jose Luis Lizundia eta abarrek luze idatzi eta argi adierazi dute, urteen urteetan, egokiera hori.

Horixe da, bada, Euskaltzaindiak eginkizun izan dezakeena. Horixe dugu jomuga *Jagon* Sailaren Sustapen Batzordean, eta horixe nahi dugu gaur gizarteratu, denon jakinbidean gera dadin.

### 2.3. Sustapenaren eginkizunik beharrenak

Gogoeta eta ekintza, ekintza eta gogoeta. Horretarako zailtasunak eta ajeak ere, nolana hikoak eta norana hikoak.

Lehen-lehena ofizialtasunarena da. Erramun Baxok hizlari eta batzordekide jakintsuak gogoratuko digu, beste behin ere, Euskal Herriko beste lurralde batzuetan euskarak bizi duen egoera urria, hango gabeziak eta deusezak azaleratuz.

Horixe dugu, esan legez, aurrepausorik nabariena egunotan. Hala ere, ez nuke horretan agortu nahi "Sustapen" lanaren muina. Hasiera dugu hori, oi-

narrizko baldintza “sustapen” egintza baterako. Ez, ordea, egintza horren eraginaren ziurtatzaile eta bermatzaile bakarra. Edu horretako adibideak sobera ezagunak dira. Eragingarritasun horrek gizarte oso baten gogoak dakar. Nekez izango du ahala Euskaltzaindiak horretarako, bestelako erakundeekin batera jarduten ez badu.

Aurtemein plazaratu digu Euskal Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako Sai-lordetzak “Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia”. Betoz testu horretatik hona jarraikoak, hitz horien mezuarekin guk guztiok bat egingo dugulakoan:

*Horrexegatik, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea. Hizkuntza komunitatearen eskubide kolektiboa ukatu gabe, herritar bakoitzaren hizkuntza-eskubideak guztiz errespetatuak izan daitezzen lortzeko urratsak areagotzea, jakinik, botere publikoek eskubide hauek babesten dituztela; euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eskaintzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea, horrela bakarrik bermatuko baita euskararen biziraupena eta normalizazioa (49. orrialdea).*

Testu horrek, bestaldetik ere, ofizialtasunaren indarra azpimarratu du. Ez ahaztu, haatik, euskarari aitortu zaion ofizialtasuna (Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan behinik behin) ez dela erabatekoa, mugatua eta, hala nola esatearren, kidetua baino. Ofizialtasun hori argi-ilun askoren iturria da. Gaztelaniarekin baterakoa bai baina, aldi berean, harekiko asimetrikoa, lurraldearen ikuspegitik Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa horretara mugatua eta, hori bai, euskararen normalkuntzaren bidetik datorkiguna. Horiek horrela, ezin baztertu, lorratz beretik ere, hizkuntzarekin zerikusirik duten gai askoren gaineko eskumenek Gobernu Zentralaren esku jarraitzen dutela.

Hertsiago eta mugatuagoa da, zeresanik ez, Nafarroako Foru Erkidegoaren hizkuntz legeria. Izenak berak ere, euskararen normalkuntzarako baino, erabilera soilaren erretenera eramaten gaitu, besterik gabe. Oraindik okerragoa Iparraldeko lurraldeetan, han bertan frantses hizkuntzaren ofizialtasunak zenbait kasutan ekintza batzuen deuseztasuna ekar baitezake, frantsesaz besteko hizkuntzaz gauzatu gero.

Euskararen ofizialtasuna, hortaz, esparru zabalekoa dugu Euskal Herrian, ukorik erabatekoenetik hasi eta, etenik gabe, beste hizkuntza batekiko ofizial-kidetasun mugatu batera garamatzalako.

Frantzia bere hizkuntzaz gero eta arduratsuagoa ikusten dugu; *francophonie* horren erakusle. Espainiak ere gaztelaniaren izatea berrindartu gurako luke munduan zehar, Cervantes Institutua dela eta. Zer egin dezakegu guk? Non dago, non egon daiteke gure *hinterland*, gure *euskalfonia*, gure *Axular* Institutua? Besteak beste, Euskal Herriko lurralde guztietan eta erbestean euskararen aldeko langintzan. Jakitun izan, euskara bera legeria desberdinen menpe bizi dela, euskalkiz euskalki bizi garela, hizkuntz egoera oso bestelakoak

direla batetik bestera... etab. Baina horien guztien gainera —edo azpitik— Euskaltzaindiak badu egiteko bat, lurraldez lurraldeko euskararen hizkuntz politiken arteko zubilana gauzatzeko. Areago, euskaldunen arteko zubilana egiteko, “herria” egiteko, Jose Luis Lizundiak esan ohi duenez.

Euskararen ofizialtasunak dakar, besteak beste:

a) Euskaltzaindiak berak urteetan ondu eta egun ere ontzen duen euskara estandar horren zabalkunde eta hedatzea. Statusa → corpora.

b) Estandar horren erabilera bertsua, lan eraberetzailer horrek bere onorioak alferrik gal eta ezaba ez ditzan, batik bat, puntarengo ditugun eremuetan: komunikabide, Administrazio eta hezkuntzaren arloetan.

Euskal Herriaren bidegintzan, euskarak eta Euskaltzaindiak badute zere-sanik. Muga guztien gainera, ardurapekoa du erakunde honek mugaz haraindiko eta honaindiko ordezkariak euskararen inguruko politika komunak zehaztu ditzaten.

Horretarako ereduak Europan bertan ditugu. Aipa ditzagun bi:

A) Taalunie edo Neerlanderen Batasuna.

B) Ipar Europako Herrialdeen Kontseilua.

Lehenari dagokionez, Taalunieren helburuak, estatus eta corpusen arteko autuak, egoki zerrendatzen dira Belgika eta Herbehereen arteko itunaren 3. artikuluan. Besteak beste, honako hauek:

a) Hizkuntzaren hobekuntza.

b) Neerlanderen ezagutza eta erabilera sustatzea.

c) Neerlanderen literatura bultzatzea.

d) Neerlandera hizkuntza eta literatuaren kanpo aldeko eragina bermatzea.

Horretarako, organo batzuk eratu behar eta hona hemen organo horiek:

1. *Ministroen batzorde parekidea (alde bakoitzeko, gutxienez, bi kide); batzorde horretan erabakiak aho batez hartzen dira (alde bakoitzak, boto bat).*

2. *Parlamentuen arteko batzordea, hori ere parekide; berori arduratzen da hitzarmenaren gaineko kontrolaz.*

3. *Administrazioaren esparruan, Idazkaritza Nagusia. Horrek betetzen du Ministroen Batzordean finkaturiko politika, eta berari dagokio belgikarren eta nederlanderren arteko oreka zaintzea (Ministroen batzordeak Hagan ezarri zuenez, idazkari nagusia belgikarra da eta horren ordezkoa, aldiz, holandarra).*

4. Zientziaren esparruan, Hizkuntza eta Literaturarako Kontseilua; horrek, Ministroen Batzordeari aholkuak emateaz gain, koordinatu egiten ditu esparru horretan diharduten erakunde guztien ekintzak.

*Finantzaketa ez da erdibana egiten, lainera baino: bi heren Holandaren penztuan eta herena, ostera, flandestarren kontura.*

*Alderdien artean gatazkarik sortuz gero, gatazka hori tartekaritzako batzordeak konponduko du. Hitzarmenaren iraupenak ez du epe mugarik, baina alderdiek aukera dute, hamar urterik behin, hitzarmen hori salatzeko. Bestalde, hitzarmenean aldaketak egin daitezke, Ministroen Batzordeak hala proposatuta.*

*Gainerako estatuek, berebat, hitzarmenari atxikitzeko aukera dute (Marí, I. Un horitzó a la llengua (Aspects de la planificació lingüística), Empúries, Bartzelona, 1992, 57 eta 58. orrialdeak).*

Horra hor, beraz, politika berri horren ondorengo nagusia: euskal lurraldeen arteko errezeloaren orde, euskararen aldeko elkarkidetzeta eta eragingarritasuna.

Eta horra hor, orobat, "Sustapen" Batzorde horrek dituen eginkizun garantzitsuenetako bat: bidegintza horretan, tresna teoriko nahiz praktikoak asmatzea, horiei buruz hausnartzea, aholkuak ematea eta abar, betiere, Euskal Herriaren osotasuna aintzat hartua. Euskararen sustapen lanak halaxe behar du izan, eta Europan zehar dabilzan haize bolada berriak norabide beretik datoz (Hizkuntz Eskubideen Europako Ituna...).

Horrela jardun eta berehala konturatuko gara "Sustapen" lan horretan bada bestelako ardatzik ere. Batzorde lanak badu horren inguruan gogoetatzeko aukerarik, gaia pil-pilekoa baitugu. *Hizkuntz eskubideak* dira horren mami eta euskaldunon hizkuntz eskubideak, zehatzago, horren funts. Hizkuntz eskubideen gaineko babesa eta defentsa, legezkoa baino, hitzaren bidezkoa, agiri, irizti eta abar euskal gizartearen aurrean jarrita.

*Hizkuntz eskubideak.* Horra hor gakoa. Horren moldaketa ez da erraza, ezta erosoia ere. Euskaltzaindiak, beharrezkoa izango balitz ere, salaketa izango luke hizpide alor horretan (euskara dela-eta izan daitezkeen diskriminazio guztiak) eta, baita, buruen-buruenik, hizkuntz eskubideak hobetzeko eta babesteko gogoetak eta aholkuak ere.

Azpiparratu, besterik ez, ofizialtasuna eta hizkuntz eskubideak txanpon bateko bi aurpegiak direla eta, joko horretan, Euskaltzaindiak, berezko duen lurraldetasunaren bidez, berebiziko jokamoldea eskain dezakeela, "Sustapen" Batzorde horretan baitira, eskubide propioz, Euskaltzaindiak Euskal Herriko lurralde guztietan dituen ordezkariak. Beroriek dakite ondoen euren lurraldearen egoera eta berorien bitartez lor daiteke, batasunaren izenean, lurralde baikoitzari dagokiona egoki asmatzen.



Gure Batzordeak gauzatu beharreko jardueren zerrenda ezin da bukatu, edonola ere, beste xede bat aipatu gabe. Helburu hori, batzuen ustez, bigarren mailakoa izango da aurrekoei begira; beste batzuen aburuz, aldiz, berori izan daiteke garrantzitsuena. Erakunde —publiko nahiz pribatu— desberdinen arteko lankidetzaz nabil, gure herrian halakoek lan egiten baitute euskararen garapen eta statusaren mesederako, euskararen erabilera eta aplikazioaren sustapenerako eta, oro har, euskararen aldeko hizkuntz politikak formulatzeko. Aurretiaz aipatu izan dut Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailorde-tza. Orain, berriz, Nafarroako Gobernuko Hizkuntz Zuzendaritza Nagusia edo Iparraldeko Euskal Kultur Erakunde aipatu nahi ditut, Kontseiluaren garrantzia ere aiantzi gabe, horrek bere baitan hartzen baititu molde desberdinetako hainbat erakunde.

Ez dut bat bera ere aiantzi nahi Euskal Herri osoan. Lehen esan bezala, eurokin elkarlanean aritu nahi da Batzorde hau, lantresna, hitzaldi eta mintegiak antolatzeko. Antolatze lan horren bitartez, euskararen gaineko araubidea sakondu ahal izango dugu, bere luze-zabalean, Euskal Herriaren ikusmolde baterakoa erabiliz, eta helburu argi bat lortzeko asmotan, alegia, euskara bera sustatzea.

Ildo beretik ere, nabarmentzekoa da Batzorde honek dituen asmoetako bat. “Sustapen” Batzordeak, Azkue Bibliotekaren barruan, fondo txiki bat eratu nahi du, eremu horretan ager daitezken gai ohikoenak bertara biltzeko. Eskura izango dute fondo hori aditu eta ikertzaileek edota, besterik gabe, euskararen etorkizunari eta erabilerari buruz kezkatu agertzen diren euskaldunek, eta modu horretan lortu ahal izango da, informazioaren bidez, euskara gero eta gizarte eremu handiagoetara hedatzea.

Azkenik, eta zerrendarekin bukatu baino lehen, beste ñabardura bat egin beharra dago, Akademiako Batzorde honek bete behar dituen egitekorik garrantzitsuenak oso-osorik aipatu nahi badira. Batzuek uste dute Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan euskara ofizialaren *Arcadia* zorionsuan bizi direla. Halakoei gogoratu behar diegu Kataluniako legeria berriak (1997ko urtarrilaren 1eko Legeak, hain zuzen ere) erakusten duela, argiro-argiro, zer egin daitekeen legea esku artean izanez gero. Kontrara, beste batzuek irrika bizia dute, erabateko ofizialtasuna noiz etorriko. Horiei esan behar diegu oraindik bateratu gabe daudela politikak eta lurraldeak, pertsonak eta erakundeak, eta ezinbesteko zaigula bateratze hori, lortu nahi duguna eta lor dezakeguna nolabait harmonizatu ahal izateko. Arlo horretan, nahi izateak ez dakar ahal izatea. Nahi izateak, dena den, ahal izateko giltza izan beharko luke.

Gehienekoaren eta gutxinenekoaren artean, alegia, *Scillaren* eta *Caribdisen* artean, Akademiako batzordeak hausnarketaren bidetik jo eta, euskararen eta euskal gizartearen zerbitzurako, eragingarritasuna eta onuragarritasuna lantzeko ardura hartu nahi du bere gain.

### 3. LABUR-ZURREAN

Esandakoaren mamiz, azal ditzagun, bada, labur-labur, "Sustapen" baztorde honen balizko helburuak:

a) Hausnarketa eta jarduketa teoriko nahiz praktikoa burutzea, euskararen ofizialtasunari buruzko eremu berria bilatu nahian. Euskal hizkuntza duten lurraldeetan, horrek berarekin dakar, zehatz-mehatz, *Taalunie* moduko proposamenak aztertzea, hitzaldi, mintegi eta jardunaldien bitartez.

Halaber, legegintzazko beste ekimen batzuk ere azertu, horiek lagungarri izan baitaitezke, batetik, euskararen ofizialtasuna bultzatzeko, halako ofizialtasunik ez duten lurraldeetan eta, era berean ere, ofizialtasuna sakontzeko, jadanik status hori errotua duten lurraldeetan.

b) Hizkuntz eskubideen inguruan hausnarketa eta jarduketak gauzatzea. Hori erdiesteko, bi bide aipatuko genituzke: aurrenik, euskararen aurkako be-reizkeria guztiak salatzea; eta, hurrenik, hizkuntz eskubideen arloan sor dai-tezkeen ekimenetan laguntzea, Espainian, Frantzian, Europan eta, oro har, na-zioarteko gorabeheretan.

c) Erakunde publiko nahiz pribatuekin elkarlanean aritzea, horiek euskararen gaineko hizkuntz plangintzaren arloan lan egiten dutenean. Lankidetz-a horren helburua da guztion artean behar den moduko koordinazioa lortzea, Euskal Herri osoaren mesederako euskararen alde aurrera egiteko.

d) Azkue Bibliotekaren baitan, arlo honetako argitalpen eta gaiekin fondo bat osatzea, fondo hori kontsultarako baliagarria izan dadin, arlo horretan in-teresa duten guztientzat.